Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BERGARAKO KLIMA ETA ENERGIARI BURUZKO TOKIKO PLANA 2030

Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I. SARRERA ETA TESTUINGURUA

II. KONTRATUAREN XEDEA

III. PLANAREN IRISMENA ETA JARDUERA-EREMUAK

VI. LANEN GARAPENA

V. TXOSTENEN ETA DOKUMENTUEN AURKEZPENA ZERBITZUAREN IRAUNALDIAN

VI. PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

VII. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

VIII. ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZA

IX. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

X. ESKAINTZEN EDUKIA

XI. EXEKUZIO EPEA

ERANSKINA: INGURUMENEKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

I. SARRERA ETA TESTUINGURUA

"Bergara izan, bizi, ekin" planak epe ertain-luzerako helburuak eta legealdi amaiera arteko (2023) neurriak jasotzen ditu. Plan horren 15. helburua da 2023rako Bergaran CO_2 isurketak %10 eta %20 artean murriztu eta energia kontsumoa %10 murriztea, larrialdi klimatikoa den bezalako mundu mailako erronkari gure herritik ere erantzuna emateko beharrezkoak diren neurriak hartuz. Bergarako Udalaren helburua da, Europar Batasuneko, Euskadiko eta Gipuzkoako helburuekin lerrokatuz, 2030erako berotegi efektuko gasen isurketan %40 murriztea. Hori lortzeko "izan, bizi, ekin" planen ekintzen artean jasotzen da Energia Plana idaztea.

Bestalde onartzear den "Bergara 2030 Egin Herrixa" Plan Estrategikoaren ekintza planean jasota dago "E.1.4.1. Udal eta udalerri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena".

Horrez gain, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak dei egiten die Euskadiko tokiko erakunde guztiei energiaren erabilera jasangarri baten aldeko ekintzak egiteko eta hainbat betebehar ezartzen dizkie, horien artean energia jarduketen hainbat urterako plana egitea, kontsumo zein energia berriztagarriak bultzatzeko helburuak aintzat harturik. Aipatu Legeak erakunde bakoitzak bere energia-kontsumoa 2030 urterako %35 eta 2050 urterako %50 murrizteko helburua ezartzen du. Gainera, legeak ezartzen du 2030 urterako erakunde bakoitzak bere eraikinetan energia berriztagarrien nahikoa instalazio izan beharko dituela ezarrita erakunde horren energia kontsumoaren %32 gutxienez hornitu ahal izateko, bero-aprobetxamenduko sistemak edo elektrizitatea sortzekoak barne hartuz.

Horrekin lerrokaturik, 2008. urtean eman zitzaion hasiera Europako Alkateen Itunari, udalek borondatez onartutako akordioen bidez Europak ezarritako klima eta energia alorreko helburuak bete eta hobetzeko. Itunaren sinatzaileak klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi integratu bat hartzera konprometitzen dira. Itunera atxiki direnetik lehenengo bi urteetan Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plan bat prestatzeko eskatzen zaie, 2030erako CO_2 emisioak %40 murrizteko eta klima aldaketarekiko erresilientzia handitzeko helburuekin.

Testuinguru honetan beharrezkoa ikusten da Bergarako Energia eta Klimari buruzko Tokik Plana garatzea, klima aldaketa moteltzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi bateratu bat edukitzeko. Bergarako Udalak oraindik ez du Europako Alkateen Itunera atxikitzeko erabaki, baina Ekintza eta Klimari buruzko Tokiko Plana Alkateen Itunaren baitan eskatzen diren ezaugarrien arabera ere egingo da, aurrera begira bertara atxikitzea erabakiko balitz baliagarria izan dadin.

II. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea izango da Bergarako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana 2030 (aurrerantzean KETP) idaztea, 2030 urterako udalerrian berotegi-efektuko gasen isurketak %40 gutxitzeko helburua lortzeko, eta klima aldaketaren murrizketa eta egokitzapena bultzatzeko ikuspegi partekatu bat hartzeko ekintzak definitzeko helburuarekin.

Horrez gain, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzeko, KETPak behar diren ekintzak jasoko ditu Bergarako Udalak 2030 urterako bere eraikinetan energia berriztagarrien nahikoa instalazio izateko bere energia kontsumoaren %32 gutxienez hornitu ahal izateko, bero-aprobetxamenduko sistemak edo elektrizitatea sortzekoak barne hartuz. Gainera, KETPak aipatu Legeak ezarritako gainontzeko betebeharrak betetzeko behar diren ekintzak jaso beharko ditu.

Bergarako Udala

III. PLANAREN IRISMENA ETA JARDUERA-EREMUAK

Jarraian jasotzen dira KETP idaztean bai arintzearen alorrean, bai egokitzearen alorrean, planak landu beharko dituen sektoreak eta jarduera-eremuak.

III. 1. ARINTZEAREN ALORREAN:

Kontsumo energetikoen eta BEG isurketen diagnostiko eta inbentario maila egiteko sektore guztiak hartu beharko dira kontuan, izan ere dagoeneko sartuta daude Udalsarea 2030 erakundearen inbentarioak kalkulatzeko tresnan:

1. Udala
2. Etxebizitzak
3. Zerbitzuak
4. Mugikortasuna eta garraioa
5. Hondakinak
6. Ura
7. Industria
8. Lehen sektorea

KETP-aren Ekintza Plana egiteko, honako sektore eta jarduera-eremuak hartuko dira aintzat:

SEKTOREA	JARDUERA-EREMUA
Udala	- Aurrezpen eta efizientzia energetikoa - Berriztagarriak - Ibilgailuen flota
Etxebizitzak	- Aurrezpen eta efizientzia energetikoa - Berriztagarriak - Pobrezia eta kalteberatasun energetikoa
Zerbitzuak	- Aurrezpen eta efizientzia energetikoa - Berriztagarriak - Ekonomia berdea
Mugikortasuna eta garraioa	- Egoiliarren eta udalerriko jarduera ekonomikoaren mugikortasuna (udalerritik pasatzen den trafikoa kanpo utzita, udalaz gaindiko azpiegituretan)
Hondakinak	- Hiri-hondakinen kudeaketa
Industria	- Aurrezpen eta efizientzia energetikoa - Berriztagarriak (isurketa industrialen kontrol eta salerosketaren europar eskemaren mende dauden industriak kanpo utzita)..

III. 2. EGOKITZEAREN ALORREAN

Klima aldaketara egokitzeari dagokionez, Alkateen Itunean aintzat hartutako sektoreekin bat datozen honako sektore eta jarduera-eremuak aintzat hartuko dira:

SEKTOREA	JARDUERA-EREMUA
Natura-ingurunea	- Baliabide hidrikoak - Lehorreko ekosistemak - Lurzorua
Hiri-ingurunea eta azpiegiturak	- Azpiegitura kritikoak - Azpiegitura linealak - Lurraldearen plangintza eta hiri-antolamendua - Hiri-ingurunea - Eraikinak
Jarduerak	- Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta arrantza - Industria - Turismoa - Finantzak-aseguruak
Osasuna eta babes zibila	- Osasuna - Babes zibila eta larrialdiak
Beste batzuk	- Kontuan hartzen ez diren beste sektore batzuk eta zeharkako ekintzak

Diagnostiko mailan, gutxienez honako inpaktu-kateak aztertu beharko dira Bergarako udalerrian:

1. Giza osasunean inpaktua duten bero-boladak
2. Hiri-ingurunean inpaktua duten ibai-uholdeak
3. Jarduera ekonomikoetan inpaktua duten lehorteen hazkundea

Ekintzen plangintzari begira, gutxieneko esku-hartze maila honako bi maila hauetan ezarriko da, inpaktu-kateek orain duten arrisku-maila eta etorkizunean aurreikusten zaien arriskua (RCP 8.5 agertokia eta 2011-2040 epea) aintzat harturik:

I. maila:

- Orain arrisku handia duten eta etorkizunean arrisku hori mantendu edo areagotuko duten inpaktu-kateak.
- Orain arrisku ertaina duten baina etorkizunean hazteko arriskua duten inpaktu-kateak.

II. maila:

- Orain arrisku handia duten baina arrisku hori gutxitzeko aurreikuspena duten inpaktu-kateak.

- Oraingo arriskua txikia izan arren etorkizunerako arrisku hori igotzea aurreikusten den inpaktu-kateak.
- Orain arrisku ertaina dute baina maila hori modu iraunkorrean mantentzea aurreikusten duten inpaktu-kateak.

IV. LANEN GARAPENA

Bergarako KETP egiteko lanak bost urratsetan banatuko dira:

1. Prestatze fasea
2. Diagnostikoa osatzea
3. KETParen estrategia formulatzea
4. KETParen ekintza plana osatzea
5. Ebaluaziorako eta jarraipenerako estrategia diseinatzea

Horrez gain, proiektuaren fase guztietan garatuko diren bi arlo ere landu beharko dira:

6. Barne- zein kanpo-partaidetza
7. Planari lotutako komunikazioa

Jarraian zehazten dira enpresa esleipendunak fase bakoitzean egin beharreko lanak:

IV.1. PRESTATZE FASEA

Enpresa esleipendunak prozesuari modu egokian ekiteko beharrezkoak diren aurretiazko lanak egin behako ditu. Lan horien artean daude zeregin teknikoak, KETP Udalaren baitan zeharkakotasunez lantzeko beharrezkoak diren mekanismoak sortzearekin zein herritarren partaidetzarekin zerikusia dutenak.

Zehatzago, fase honetan burutu beharreko lanak honakoak izango dira:

1. INFORMAZIO-ITURRIAK IDENTIFIKATU ETA DOKUMENTAZIOA BILDU:

   KETParen xede diren sektore eta jarduera-eremuekin zerikusia duten plan eta azterlan nagusiak identifikatu eta bilduko dira. Besteak beste, honako dokumentuetan jasotako informazioa bilduko da:

   Arintzearen alorrean:

   - Udalaren inbentarioa: eraikinak, argiteria, ponpaketa-instalazioak eta ibilgailuak
   - Eginda dauden auditoretza eta azterlan energetikoak.
   - Eginda dauden energia berriztagarrien potentzialari buruzko azterlanak.
   - Udalaren karbono-aztarna, oinarrizko urtean eta osagarrietan
   - Etxebizitzak birgaitzeko planak edo/eta auzoak gaitzeko edo birgaitzeko.
   - Indarrean dauden planetan jasotako eta KETPean integratu daitezkeen ekintzak (gauzatuta edo gauzatzeko daudenak).

- Klima eta energiari buruzko tokiko planean kontsideratzen diren sektoreei buruzko planak eta azterlanak (mugikortasun plana, hondakinak kudeatzeko planak, bizikletaren erabilera sustatzeko planak, etab)
- Pobrezia energetikoari buruzko azterlanak edo txostenak.

Egokitzearen alorrean

- Udalaren kalteberatasun eta arriskuaren fitxa.
- Klima-agertokiak
- Muturreko gertaeren erregistroa.
- Uholde-arriskuaren kartografia
- Hirigintza plangintza: HAPO, Plan Partzialak, Plan Bereziak, etab.
- Larrialdietarako Planak eta uholdeen aurretik esku hartzeko protokoloak.
- Bero-boladen aurretik jarduteko prebentzio-protokoloak.
- Hiri-eremuko azpiegituren eta aurreikusitako esku-hartzeen zerrenda.
- Hornidura/saneamenduko azpiegiturak kudeatzeko planak.

2. TALDE ERAGILEA ERATZEA

   Proiektuaren talde eragilea izango den Udal barneko lantaldea osatuko da, udaleko ordezkari politiko eta teknikariekin, zein enpresa esleipenduneko teknikariekin.

3. BARNE- ETA KANPO-PARTAIDETZARAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO PLANAK DISEINATZEA:

   Lanen esleipendunak proiektuaren hasierako lanen artean, KETPari lotutako barneko eta kanpoko parte-hartze plangintza bat, eta prozesuaren fase guztietan garatuko den komunikazio estrategia bat osatu beharko ditu, lehen fase honetan udaleko teknikari eta ordezkarien onespena jaso beharko dutenak.

IV.2. DIAGNOSTIKOA OSATZEA

Enpresa esleipendunak egoeraren diagnostikoa osatuko du, bai arintzearen alorrari bai egokitzearen alorrari dagokionez, honakoak oinarritzat hartuta: balantze energetikoa eta BEG isurketen balantzea (arintzearen arloan) eta klima aldaketaren joeren azterketa eta klima-mehatxuekiko kalteberatasuna eta arriskua (egokitzearen arloan).

Diagnostikoa osatzeko honako lanak burutuko dira:

IV.2.1. UDALERRIA TESTUINGURUAN JARTZEA, KLIMA ALDAKETAREN ALORREAN:

Udalerriaren testuinguru fisiko eta geografikoari buruzko eta aldagai demografiko eta sozioekonomikoei buruzko informazioa bilduko da, ondoren egingo diren inbentarioen, kalteberatasun eta arriskuari buruzko azterketen emaitzen interpretazioan lagungarri izateko.

Zehazki, honako alderdiei buruzko informazioa bildu eta aztertuko du enpresa esleipendunak:

a. **Lurralde-alderdiak:**
   - Kokapen geografikoa
   - Lurzoruaren erabilerak
   - Indarrean dagoen hirigintza plangintza: HAPO, Plan Partzialak, Plan Bereziak, etab.
   - Eraikuntza-egitura
   - Mugikortasun panak
   - Mugikortasunaren oinarrizko karakterizazioa

b. **Alderdi sozial eta ekonomikoak:**
   - Demografia
   - Kolektibo ahulen egoera udalerrian eta pobrezia energetikoa
   - Sektore ekonomikoen pisua udalerrian.

c. **Ingurumen-alderdiak:**
   - Hondakinak kudeatzeko sistema

IV.2.2. ARINTZEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA:

Diagnostiko honen helburua izango da kontsumoan eta isurketetan eragin handiena duten eta joera negatiboa duten sektoreak identifikatu ahal izatea.

Diagnostikoa honako azterketekin osatuko da:

a. **Udalerriko sektoreen balantze energetikoa eta BEG inbentarioa kalkulatu:**
   - *Udalerriko sektoreen balantze energetikoaren eta isurketen inbentarioaren kalkulua burutu*: Lan hau egiteko Udalsarea 2030en inbentario tresna erabiliko da eta udalerriko sektore guztiak hartu beharko dira: Udala, etxebizitzak, zerbitzuak, mugikortasuna eta garraioa, hondakinak, ura, industria, lehen sektorea. Epe luzerako joerak identifikatu ahal izateko hartuko den datu-serie historikoa 2010etik geroztik izango da.
   - *Emaitzen interpretazioa*: Balantze energetikoaren eta BEG inbentarioen seriearen bilakaerak eta sektore zein iturrien araberako banaketa oinarritzat hartuta.
   - *Oinarri-urtearen ezarpena*: 2030 urterako lortu nahi diren kontsumo eta isurketen murrizketaren helburuak geroago definitzeko erreferentziatzat hartuko den oinarrizko urtea zehaztuko da.

b. <u>Udalaren balantze energetikoa eta karbono-aztarna kalkulatu:</u>

- *Udalaren balantze energetikoaren eta karbono-aztarnaren kalkulua burutu*: Lan hau egiteko Udalsarea 2030en karbono-aztarnaren tresna erabiliko da eta udalaren azpisektore hauek hartu beharko dira: eraikinak argiteria, beste instalazioak (ponpaketak eta abar) eta udal ibilgailuen flota. Epe luzerako joerak identifikatu ahal izateko hartuko den datu-serie historikoa 2010etik geroztik izango da.
- *Emaitzen interpretazioa*: Balantze energetikoaren eta karbono-aztarnaren seriaren bilakaerak eta Udalaren azpisektore zein iturrien araberako banaketa oinarritzat hartuta.
- *Oinarri-urtearen ezarpena*: 2030 urterako lortu nahi diren kontsumo eta isurketen murrizketaren helburuak geroago definitzeko erreferentziatzat hartuko den oinarrizko urtea zehaztuko da.

c. <u>Udal instalazioen azterketa energetikoa osatu:</u>

Eraikinen, argiteriaren, beste instalazioen eta udal ibilgailuen flotaren kontabilitate energetiko espezifikoa egingo da azken urte naturalerako. Eraikin bakoitzerako kontabilitate bat egingo da, erabilitako energia-iturri guztiak barne hartuta. Gainera, osatzen den inbentario edo kontabilitate honek honako datuak jaso beharko ditu:

- *Eraikinak*: ezaugarri fisikoak (azalera, inguratzailea), ekipo eta instalazioak (argiztapena, berokuntza, hozkuntza, ekipo elektrikoak), berriztagarrien sorkuntza eta erabilera eta kudeaketa mota.
- *Argiteria publikoa*: udalerrian jarrita dauden teknologia ezberdinak eta horietako bakoitzak kontsumo osoan duen pisua. Ezarrita dauden erregulazio- eta kudeaketa-sistemak.
- *Udal ibilgailuen flota*: ibilgailuen inbentarioa (modeloak, erregai mota, antzinatasuna, beste ezaugarriak) eta egungo kontsumoen banaketa iturri energetikoen arabera.

Kontabilitate energetikoa egiteko, energia-iturri guztien fakturazio energetikoari buruzko informazioa bildu beharko da (elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk) eta horien gehiketa egin Excel orrien bidez edo kontabilitate energetikoko tresna espezifiko baten bidez. Esleipendunak aipatu inbentario hau behar den formatu eta eredu bateragarrian osatuko du, 4/2019 Legearen 11. artikuluak ezarritakoa betetzeko baliatu ahal izateko Udalak.

IV.2.3. <u>EGOKITZEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA</u>

Egokitzearen alorrari buruzko diagnostikoa klima-arriskuaren azterketan oinarrituko da, horrek ahalbidetuko baitu identifikatzea zein diren klima-mehatxu esanguratsuenak eta zer sektoretan gertatuko diren inpaktu nagusiak. Egokitzeari buruzko diagnostikoa osatzeko esleipendunak honako lanak burutu beharko ditu:

a. **Joera historikoen eta klima proiekzioen azterketa**

Honako azterketak egin beharko dira:

- *Joera historikoen eta muturreko gertaeren azterketa.*
- *Etorkizunerako klima-proiekzioen azterketa.*

Horiek burutzeko esleipendunak RCP 8.5 agertokia hartuko du, aldi hauetarako:

- Behatutako datuak: Erreferentziazko epea: 1971-2000
- Proiekzioak:
  - Egungo egoera – Epe laburrerako egoera: 2011-2040
  - Etorkizuna – Epe ertaina: 2041-2070
  - Mende amaiera: 2071-2100

b. **Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna eta arriskuaren ebaluazioa**: Oraingo zein etorkizuneko arriskua karakterizatzea izango da helburua, eskuhartzerako lehentasunezko eremuak identifikatzeko. Horretarako honako inpaktu-kate bakoitzerako aurreikusitako aldaketak aztertuko dira, RCP 4.5 eta 8.5 agertokietarako eta aurreko atalean zehaztutako epe bakoitzerako (1971-2000, 2011-2040, 2041-2070, 2071-2100):

  - Giza osasunean inpaktua duten bero-boladak
  - Hiri-ingurunean inpaktua duten ibai-uholdeak
  - Jarduera ekonomikoetan inpaktua duten lehorteen hazkundea
  - Itsas maila igotzeagatik hiri-ingurunean inpaktua duten uholdeak

Ebaluazio hau egiteko honako lanak burutu beharko dira:

- *Egungo kalteberatasun eta arriskuaren karakterizazioa*
- *Etorkizuneko kalteberatasun eta arriskuaren karakterizazioa.*
- *Emaitzen interpretazioa.*
- *Lehentasunezko esku-hartzea behar duten eremuen identifikazioa.*

IV.3. KETParen ESTRATEGIA FORMULATZEA

KETPak izaera estrategikoa duenez, diagnostikoa burutu ondoren hausnarketa prozesu bat jarriko da abian, ekintzen norabidea eta haiekin lortu nahi diren helburuak adosteko.

Hala, fase honetan elementu estrategikoen formulazioa (ikuspegia eta helmugak) egingo da, planaren norabidea ezarri ahal izateko eta helburuak indarrean dagoen araudiarekin eta Udalaren politikekin lerrokatu ahal izateko.

Fase honetan burutu beharreko lanak honakoak izango dira:

IV.3.1. IKUSPEGIA FORMULATZEA

Esleipendunak planaren helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko jarraitu nahi den norabidea islatzen duen adierazpen sintetikoa proposatuko du, Udalaren onespena jaso beharko duena. Ikuspegia formulatzeko denbora-horizontea 2030. urtea izango da.

IV.3.2. HELBURUAK FORMULATZEA

Esleipendunak helburuen lehen proposamena osatuko du, ondoren Udalaren onespena jasotzeko. Helburuak kuantitatiboak izatea saiatuko da, nahiz eta helburu kualitatiboren bat ere txertatu ahalko den. Helburuak bereizi egingo dira, klima aldaketa arintzeari lotutakoen eta klima aldaketara egokitzearekin lotutakoen artean.

Helburu hauek definitzeko aintzat hartu beharko dira indarrean duden araudi zein politikek dagoeneko ezarritakoak, hala nola:

- BEG isurketak gutxienez %40 murriztea 2030. urterako.
- Udalaren kontsumo elektriko eta termikoaren %32 sorkuntza berriztagarrikoa izatea 2030. urterako.
- Udalaren kontsumo energetikoa gutxienez %35 murriztea 2030. urterako.

IV.4. KETParen EKINTZA PLANA OSATZEA

Diagnostiko fasean identifikatutako lehentasunak oinarritzat harturik, planaren helburuak betetzeko neurriak zehaztuko dira, eta horien karakterizazio eta kuantifikazioa egingo du esleipendunak. Horiek guztiek KETParen Ekintza Plana osatuko dute.

Esleipendunak honako lanak burutu beharko ditu fase honetan:

IV.4.1. EKINTZA PLANAREN ESKEMA EGITEA

Ekintza plana hiru mailatan egituratuko da: ildo estrategikoak, programak eta ekintzak. KETParen ekintzak zehaztu baino lehen beste plangintza-esparru batzuetan indarrean dauden eta KETParen helburuei erantzuten dieten ekintzak identifikatuko dira. Fase honetan Ekintza Plana osatuko duten ildo estrategiko, programa eta ekintzen zerrenda osatuko da.

IV.4.2. EKINTZEN KARAKTERIZAZIO FITXAK OSATU

Ekintzen zerrendatik abiatuz, ekintza horietako bakoitzaren karakterizazio fitxa osatuko du esleipendunak, besteak beste honako informazioa bilduz:

a. Ekintzaren izenburua
b. Ildo estrategikoa
c. Programa
d. Ekintzaren deskribapena
e. Arduraduna
f. Hasierako eta amaierako urtea

g. Lehentasuna (Handia/Ertaina/Txikia)
h. Aurrekontua
i. Finantzazioa
j. Zer GJHri egiten dion ekarpena

Gainera, hainbat eremu espezifiko ere bildu beharko ditu fitxa honek, ekintza arintzearen edo egokitzearen alorrean kokatzen den arabera:

ARINTZEKO EKINTZAK

1. Sektorea
2. Egokitzeari laguntzen dio (Bai/Ez)
3. Aurrezpen energetikoa (kWh)
4. Energia berriztagarrien ekoizpena (kWh)
5. Saihestutako isurketak (tCo2)
6. Kostua/tCo2
7. Estimatutako aurrezpen ekonomikoa
8. Itzulkin-tasa bakuna

EGOKITZEKO EKINTZAK

1. Sektorea
2. Tipologia
3. Arintzeari laguntzen dio (Bai/Ez)
4. Zer inpaktu-katetan du eragina
5. Xedetzat hartutako biztanleria-taldeak

IV.4.3. PLANAREN INPAKTU GLOBALA KALKULATU

Ekintza plana osatuko duten ekintzen karakterizazioa buruturik, esleipendunak kalkulua egin beharko du ekintza horiekin guztiekin lortuko den kontsumoen murrizketa, sorkuntza berriztagarriaren igoera eta BEG isurketen murrizketa, Planean 2030. urterako ezarritako helburuak bertan jasotako ekintzak garatzearekin lortu daitezkeela ziurtatzeko.

Arintzeari dagokionez, kalkulu hori egiteko abiapuntutzat hartuko dira diagnostiko fasean ezarritako oinarrizko urteko kontsumo eta isurketak, egungo kontsumo eta isurketak, eta plana egin ezean 2030. urterako aurreikusiko litzatekeen bilakaera.

Fase hau iteratiboa izan daiteke, hots, kalkuluaren ondorioa bada aurreikusitako ekintzekin ez direla 2030. urterako ezarritako baldintzak lortuko, neurrien kopurua eta intentsitatea handitu beharko dira, modu iteratiboan, helburu horiek lortu arte.

IV.5. EBALUAZIORAKO ETA JARRAIPENERAKO ESTRATEGIA DISEINATZEA

Esleipendunak KETParen ebaluaziorako eta jarraipenerako estrategia diseinatu beharko du. Ebaluazio eta jarraipen hori honako alderdietan banatuko da; esleipendunak osatzen duen estrategian zehatz jaso beharko dira alderdi horietako bakoitzean egin beharreko lanak, lan horien arduraduna eta maiztasuna:

I. Planaren gauzatze mailaren ebaluazioa.

II. Emaitzen jarraipena, adierazleak oinarritzat hartuta

III. Udalerriko BEG inbentarioa kalkulatzea

IV. Udalaren karbono-aztarna kalkulatzea

V. Emaitzak komunikatzea eta kontuak ematea

VI. 4/2019 Legearen betebeharren baitan egin beharreko komunikazioak

VII. Aurrerapen eta emaitzez informatzea (Udalak Alkateen Itunari atxikitzea erabakiko balu)

IV.6. BARNE- ZEIN KANPO-PARTAIDETZA

Lanen esleipendunak lanen lehen fasean (IV.1. Prestatze Fasea) KETPari lotutako barneko eta kanpoko parte-hartze plangintza bat osatu beharko du, lanen lehen fase horretan udaleko teknikari eta ordezkarien onespena jaso beharko duena.

Hala, esleipendunak gaur egun udalerrian martxan dauden parte-hartze mekanismoen azterketa bat egingo du lehenengo, eta azterketa hori oinarri harturik parte-hartze prozesu bat diseinatu eta proiektuaren prozesu osoan zehar garatu beharko du. Partaidetza honen helburua izango da interesa duten taldeak prozesuan barneratzea. Parte-hartze plangintza honek honako alderdiak hartu beharko ditu kontuan:

- Parte hartzaileen eginkizun eta eskumenak argi definitzea
- Honako eragileen iritzia barneratzea:
    - Talde politikoak
    - Auzo-alkateak
    - Bergarako jarduera sozioekonomikoan interesekoak diren talde edo elkarteak
    - Bergaran ingurumenaren alde egiten duten talde edo elkarteak
    - Interesekoak izan daitezkeen bestelako elkarte edo taldeak
    - Udalaren Sail desberdinak
    - Elkarteen kide ez diren herritarrak

Aipatu talde horien iritzia aintzat hartzea KETP garatzeko prozesu osoan zehar, eta bereziki:

- Diagnostikoari dagokionez, udalerriak klima-mehatxuen aurrean dituen kalteberatasun eta arriskuari buruzko hausnarketa konpartitu bat lortzeko.
- Energiaren eta klima aldaketaren alorretan Bergarako etorkizunari buruzko ikuspegi partekatu bat lortzeko.
- Planarekin lortu nahi diren xede eta helburuak zehazteko

- Eraginkorrak izango diren ekintzak lantzeko. Partaidetzaren helburua izango da eragile sozial eta ekonomikoak zein herritarrak ekintza jakin batzuen kodiseinuan inplikatzea, hau da, herritarren inplikazioa beharko duten ekintzen kodiseinuan inplikatzea.

Kanpo parte-hartzeari dagokionez, proposamenean gutxienez bi saio (gutxienez) aurreikusi beharko dira prozesuak irauten duen bitartean herritarrek parte hartzeko: bat diagnostiko fasean eta beste bat ekintza plana garatzeko fasean. Esleipendunak bere gain hartuko ditu saio horiek antolatzen lagundu eta haiek dinamizatzeko lanak.

Barneko parte-hartzeari dagokionez, proposamenean gutxienez hiru lan-saio aurreikusi beharko dira udal teknikari eta ordezkariekin: diagnostiko fasean eta ekintza plana garatzeko fasean. Esleipendunak bere gain hartuko ditu saio horiek antolatzen lagundu eta haiek dinamizatzeko lanak.

IV.7. PLANARI LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA

Esleipendunak prozesuaren fase guztietan zehar garatuko den Komunikazio estrategia bat osatu beharko du. Komunikazio estrategia diseinatzeko garaian, honako motako ekintzak garatzea aztertu beharko da:

- Udalaren webgunearen eta sare sozialen bitartez komunikazio ekintzak egitea honako alderdien inguruan:
  - Energiaren eta klima aldaketaren alorrean testuinguru estrategiko eta normatiboa.
  - Planaren faseak
  - Bileren ondorio nagusiak
  - Planaren dokumentazioa
- Planaren eta berari lotutako jarduerei buruzko prentsa-oharrak eta beste informazioa prestatzea.
- Deialdiak, jarraipenak, aktak eta aurkezpenak egitea, baita plana egitearekin eta parte-hartzearekin zerikusia duten beste jarduerak ere.

V. TXOSTENEN ETA DOKUMENTUEN AURKEZPENA ZERBITZUAREN IRAUNALDIAN

V.1. LANEKO DOKUMENTUAK

Esleipendunak kontratuaren azken dokumentuez gain, barneko zein kanpoko parte-hartzeari lotuta sortzen den materiala, bai eta Udalak egokitzat jotzen duen beste zenbait dokumentazio teknikoa eman beharko du.

Paper-kontsumoa murrizteko, zerbitzuaren/proiektuaren iraunaldian sortutako laneko dokumentuak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira, posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bitartez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez) edo, bestela, CD, DVD edo antzeko euskarri batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko. Aitzitik, kontratazio prozedurari dagozkion agiriak baldintza tekniko agiri honen VIII. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

V.2. AZKEN DOKUMENTUAK

Bergarako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana 2030 prozesuaren emaitza gisa esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- I. Dokumentua: DIAGNOSTIKOA

  I.I. Udalerriaren testuinguruan, klima-aldaketaren alorrean

  I.II. Arintzeari buruzko diagnostikoa

  - Udalerriko sektoreen balantze energetikoa eta BEG inbentarioa. Oinarri-urtearen kalkulua.
  - Udalaren balantze energetikoa eta karbono-aztarna. Oinarri-urtearen linearen kalkulua.
  - Udal instalazioen azterketa energetikoa.

  I.III. Egokitzeari buruzko diagnostikoa

  - Joera historikoen eta klima proiekzioen azterketa
  - Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna eta arriskuaren ebaluazioa

- II. Dokumentua: ENERGIA ETA KLIMARI BURUZKO TOKIKO PLANA: EKINTZA PLANA

  II.I. Formulazio estrategikoa: ikuspegia eta helburuak.

  II.II. Ekintza planaren eskema: ildo estrategiko, programa eta ekintzen zerrenda.

  II.III. Ekintzen karakterizazio fitxak

  II.IV. Ekintza planaren agertokia 2030 urterako eta joerazko agertokiaren kalkulua 2030 urterako.

- III. Dokumentua: JARRAIPENERAKO ETA EBALUAZIORAKO ESTRATEGIA
- IV. Dokumentua: PARTE-HARTZE PLANA ETA KOMUNIKAZIO PLANA
- V. Dokumentua: LABURPEN EXEKUTIBOA.

  Planaren ikuspegi orokorra jasoko da, ondorengoa sartuz:

  - Bergarako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Planaren helburuak.
  - Estrategia: Aurreikusitako helburuak betetzeko lehentasunezko jarduketa sektoreak, sektore bakoitzaren baitan lehentasunezko lerro estrategikoak eta programak zehaztuz.
  - Ekintzen laburpen taula, energia aurrezpena, CO_2 isurien murrizketa eta ekintza bakoitzaren kostua zehaztuz, sektoreka ordenaturik, estrategian ezarritako lehentasunen arabera. Gainera, proposatutako ekintzen gauzatze egutegia txertatuko da.

- ERANSKINAK:

  - Erabilgarri den dokumentazioaren azterketa: azterketarako erabilitako irizpideak.
  - Oinarri-urteko eta datuak erabilgarri dauden azken urteko energia kontsumoak (Udalarenak eta udalerrikoak): abiatze hipotesia eta egindako balioespenak.

- Oinarri-urteko eta datuak erabilgarri dauden azken urteko isurien inbentarioa: kalkulu metodoa, balioespenak, isuri faktoreak...
- Joerazko agertokia: Irizpideak eta erabilitako hipotesiak
- Joera historikoen eta klima proiekzioen azterketa: jarraitutako irizpideak, erabilitako hipotesiak, kalkulu metodoa, balioespenak.
- Klima aldaketaren aurreko kalteberatasuna eta arriskuaren ebaluazioa: Erabilitako irizpide eta hipotesiak.
- Klimari eta Energiari buruzko ekintzen zehaztapena: Egindako balioespenak.
- 2030. urteko isurien inbentarioa: kalkulu metodoa, isuri faktoreak...

Esleipendunak aurkeztu beharreko V. dokumentua (Laburpen exekutiboa) euskaraz eta erdaraz egongo da. Gainontzeko dokumentuak euskaraz egongo dira.

Kasu guztietan, bi kopia entregatu behar dira: kopia bat paperean eta bestea euskarri digitalean (Word eta PDF).

V.3. KASU GUZTIETAN

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada (azken dokumentuak) edo kontratugileak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.) esleipendunak hau egin behar du:

- Kontratugilearekin adostu dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, ez badu kontratugileak zuzenean eskatu
- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
- %100 birziklatutako papera erabili (%65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienez %20koa duen paper birziklatu gabea.
- Agiri inprimatuak eskatzen badira, erabili behar diren paper birziklatuen eta/edo ez birziklatuen dokumentazioa aurkeztu (izena, marka, ezaugarri teknikoak eta ingurumen-ezaugarriak) kontratuaren hasieran, kontratugileak onar dezan. Kontratuaren iraunaldiak aldaketarik izanez gero, horien berri eman egin behar da, eta kontratugileak, onartu.
- Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

VI. PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Udalak bertako langile bat izendatuko du proiektuaren zuzendaritza eramateko. Proiektuaren zuzendariaren zereginak honakoak izango dira:

- KETP garatzeko prozesuan parte hartzen duten udaleko teknikari eta kargu politikoak koordinatzea
- Udalaren barneko informazioa biltzea

- Prozesuan sortzen diren dokumentuak berrikustea eta baliozkotzea
- Ekintzen ezaugarriak finkatzeko fasean udal-teknikariekin koordinatuta aritzea, fase horretan parte hartzen dutela bermatzeko.
- Aholkularitza teknikoarentzako erreferentziako pertsona eta solaskidea izatea
- Proiektuko faseen segimendua egitea
- Udaleko Euskara Zerbitzuaren bitartez kontratuaren hizkuntzaren kalitatea bermatzea: prozesu osoan zehar erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko Proiektuaren Zuzendariak Udaleko Euskara Zerbitzura bideratuko ditu esleipendunak aurkezten dituen dokumentuen lehen zirriborroak, euskararen kalitateari dagokionez oniritzia eman dezaten.

VII. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak proiektua egiteko giza baliabide kualifikatuak eta kontratuaren xede diren lanak ongi egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak izango ditu, eta haren kargura izango dira betebehar horrek sorrarazitako kostu guztiak.

Esleipendunak kontratu hau ahalik eta bermerik handienez gauzatzeko egokia eta nahikoa den lantaldea izendatu beharko du; lantalde hau osatzen duten teknikariek KETPak lantzen dituen arlo desberdinen inguruko ezagutza zein eskarmentua bildu beharko dute. Hala, goi mailako titulazioa duten diziplina anitzeko teknikariek osatu beharko dute.

Lantaldeko kideen artetik proiektuaren burua izendatuko dute: berau izango da proiektua egoki gauzatzearen arduradun nagusia eta proiektuaren ordezkari zein solaskide nagusia Bergarako Udalaren aurrean. Bere ardura izango da proiektua koordinatzea, kudeatzea, gainbegiratzea, lantaldearen barne antolakuntza egitea eta adostutako epeak betetzen direla bermatzea.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, bai proiektuaren buruak bai barneko zein kanpoko parte-hartze prozesuetan parte hartuko duten teknikariek euskaraz Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila izan beharko dute.

VIII. ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZA

Esleipendunak Bergarako Udalari beste gastu gehigarririk gabe, lanaren garapenerako eta helburuak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzuak eskainiko dizkio, adibidez, azalpen bileretarako joatea eta inplikatutako eragileak informatzea.

IX. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

IX.1. ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez. Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, jardueran parte hartuko duten langileek C1 gaitasun maila (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa) egiaztatu beharko dute euskarari dagokionez.

Bergarako Udala

IX.2. BERGARAKO UDALAREKIKO HARREMANAK, BAI TEKNIKARIEKIN ETA ORDEZKARI POLITIKOEKIN

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Udalarekin izango dituen ahozko zein idatzizko harreman administratiboak euskaraz izango dira. Eta udal barneko partaidetza prozesuetan ere partaide denak euskaldunak badira, dena euskaraz egingo da.

Esleipendunak aurkeztu beharreko V. dokumentua (Laburpen exekutiboa) euskaraz eta erdaraz egongo da. Gainontzeko dokumentuak euskaraz egongo dira.

IX.3. ENPRESAK HERRITARREKIN IZANGO DITUEN HARREMANETARAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Kanpoko parte-hartze prozesuan, banakako herritarrekin zein entitateekin dituzten ahozko eta idatzizko komunikazioak (elkarrizketak, bilerak, inkestak, mezuak, etab.) euskaraz izango dira nagusiki; herritarrekiko harremanetarako udal planean ezarritako zehaztapenen arabera, betiere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Hedapen orokorreko komunikazioak ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere.

IX.4. HIZKUNTZAREN KALITATEA BERMATZEA

Prozesu osoan zehar erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko Proiektuaren Zuzendariak Udaleko Euskara Zerbitzura bideratuko ditu esleipendunak aurkezten dituen dokumentuen lehen zirriborroak, euskararen kalitateari dagokionez oniritzia eman dezaten.

X. ESKAINTZEN EDUKIA

Proposamenean honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Memoria teknikoa: Gehienez 50 orrialdekoa eta paper formatuan. Eskaintza teknikoak (ez ekonomikoak) ez ditu izan behar 50 orrialde baino gehiago, %100 paper birziklatuan (%65, gutxienez, kontsumitu ondokoa), edo baso-kudeaketa iraunkorreko zuntz-edukia %20koa gutxienez duen paper birziklatu gabean, alde bietan eta zuri-beltzean inprimatuta (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), ahalik eta gutxien koadernatua eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko) aurkeztu beharko da.

Aurkezten diren memoria teknikoek honako edukia izan beharko dute, gutxienez:

- Lanak gauzatzeko kronograma, zereginen araberakoa
- Lanak egiteko proposamen metodologikoa
- Udal barneko eta kanpoko partaidetza prozesurako proposamena
- Planaren inguruko komunikaziorako proposamena
- Diziplina anitzeko teknikarien taldearen antolaketa eta parte-hartzea: CVak, tituluak eta euskara ziurtagiriak erantsi.
- Proiektu honen helburuarekin lotutako lanetan taldeak duen esperientzia.
- Proposatzen diren hobekuntzak

2. Eranskina, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilua jarrita, baloraziorako behar dituen egiaztagiri guztiekin batera. Enpresa eskaintzaileek eranskinean ageri den ingurumenari buruzko jardunbide egokien dekalogoan jaso beharko ditu proiektua gauzatzen den bitartean ingurumen-eraginak murrizteko eskura dituzten neurriak eta, horretaz gain, enpresaren adierazpenak bermatzeko behar diren egiaztagiri guztiak aurkeztu behar dira.

XI. EXEKUZIO-EPEA

Esleipendunak hamar (10) hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu lan guztiak kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.

10 hilabeteko epe horren barruan, hiru entrega partzial egiteko kronograma ezartzen da:

- Lehenengo aurkezpena: kontratua hasten denetik 4 hilabeteko epea, diagnostikoa aurkezteko.
- Bigarren aurkezpena: 2 hilabeteko epea, diagnostikoa aurkeztu denetik, ekintza planaren formulazio estrategikoa eta eskema aurkezteko.
- Hirugarren aurkezpena: 4 hilabeteko epea, ekintza planaren formulazio estrategikoa eta eskema aurkezten denetik, Bergarako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana 2030 aurkezteko (V.2. atalean jasotako dokumentu guztiak).

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin Bergarako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana 2030 idazteko baldintza teknikoen plegu hau 2021eko abenduaren 16an emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2021eko abenduaren 16a

IDAZKARIAK

Bergarako Udala

ERANSKINA: INGURUMENEKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

Lizitatzaileak adierazten du "BERGARAKO KLIMA ETA ENERGIARI BURUZKO TOKIKO PLANA 2030" gauzatzen ari den bitartean ingurumen eraginak murrizteko behar diren neurri guztiak eskura dituela esparru hauetan:

BAI/EZ	ENPRESAN BETETZEN DUGUN JARRAIBIDEA
	1. Energiaren aldetik eraginkorrak diren ekipoak ditugu, energia-kontsumoa ahalik eta txikiena izateko moduan daude programatuta eta jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	2. Energiaren aldetik eraginkorrak diren argiztapen eta girotze-sistemak ditugu, baita energia aurrezteko sistemak ere, eta ingurumen jarraibideak aplikatzen ditugu esparru horretan.
	3. Gure jarduerarekin lotutako mugikortasunak sortutako eraginak ahalik eta txikienak izateko neurriak aplikatzen ditugu.
	4. Ingurumenari kalterik egiten ez dion bulego-materiala erabiltzen dugu, eta gure jardueran ez dugu produktu arriskutsu edo toxikorik erabiltzen, edo haien erabilera mugatua da.
	5. Ura aurrezteko ekipoak eta sistemak ditugu, eta jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	6. Hondakin arriskutsuak indarrean dagoen araudia betetzen kudeatzen ditugu, garbiguneetan tratamendu egokia izan dezaten edo hondakinak kudeatzeko baimena dutenek tratamendu egokia eman diezaieten.
	7. Arriskutsuak ez diren hondakinak bereizi egiten ditugu, udal edukiontzietan uzteko, garbiguneetara eramateko edo birziklatzen dutenei entregatzeko.
	8. Ingurumen-prestakuntza ematen diegu langileei, jardueraren ingurumen-eraginen berri izan dezaten eta eragin horiek ahalik eta txikienak izateko zer egin jakin dezaten.
	9. EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo ziurtatu gabeko (baina kredita dezakeguna) bestelako ingurumen-kudeaketarako sistema bat dugu.
	10. Beste ingurumen-ohitura batzuk abian jarri ditugu edo aurreko puntuetan adierazi gabeko ingurumen-ekimenetan lankidetzan dihardugu.

Eta, adierazpen honekin batera, hauek ematen ditu: prozeduren, lan-aginduen, neurrien, baliabideen eta adierazleen deskribapen bat eta kopia bat, justifikaziorako eta bermerako (balorazioa enpresa osoarekiko neurriaren araberakoa izango da).

Izpta.: Jn/And

NAN

Honen ordezkari gisa

Bergarako
Udala

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

PLAN LOCAL DE CLIMA Y ENERGÍA DE BERGARA 2030

Bergarako Udala

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

I. INTRODUCCIÓN Y CONTEXTO

II. OBJETO DEL CONTRATO

III. ALCANCE DEL PLAN Y ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

VI. DESARROLLO DE LOS TRABAJOS

V. PRESENTACIÓN DE INFORMES Y DOCUMENTOS DURANTE LA VIGENCIA DEL SERVICIO

VI. DIRECCIÓN DEL PROYECTO

VII. RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES

VIII. APOYO A LA ADMINISTRACIÓN

IX. REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

X. CONTENIDO DE LAS OFERTAS

XI. PLAZO DE EJECUCIÓN

ANEXO: DECÁLOGO DE BUENAS PRÁCTICAS AMBIENTALES

I. INTRODUCCIÓN Y CONTEXTO

El plan "Bergara izan, bizi, ekin" recoge objetivos a medio-largo plazo y medidas hasta el final de la legislatura (2023). El objetivo número 15 de este plan es reducir entre un 10 % y un 20 % las emisiones de CO_2 en Bergara para el año 2023 y reducir en un 10% el consumo energético, adoptando las medidas necesarias para dar respuesta también desde nuestro municipio a un reto mundial como es la emergencia climática. El objetivo del Ayuntamiento de Bergara, alineado con los objetivos de la Unión Europea, Euskadi y Gipuzkoa, es reducir en un 40% las emisiones de gases de efecto invernadero para el año 2030. Para lograrlo, entre las acciones de los planes de "izan, bizi, ekin" se recoge la redacción del Plan de Energía.

Por otra parte, el Plan de Acción del Plan Estratégico "Bergara 2030 Egin Herrixa", pendiente de aprobación, recoge lo siguiente: "E.1.4.1. Udal eta udalerri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena" (E.1.4.1. Elaborar una planificación energética a nivel de ayuntamiento y de municipio, que incluya el cambio climático.)

Además de ello, la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca hace un llamamiento a todas las entidades locales de Euskadi para que emprendan acciones a favor de un uso sostenible de la energía y les impone una serie de obligaciones, entre ellas la elaboración de un plan plurianual de actuaciones energéticas, teniendo en cuenta los objetivos de consumo y fomento de las energías renovables. La citada Ley establece el objetivo de reducir el consumo energético de cada entidad en un 35% para el año 2030 y en un 50% para el año 2050. Además, la ley establece que para el año 2030 cada entidad deberá disponer en sus edificios de instalaciones de energía renovable suficientes para abastecer al menos el 32% del consumo energético de dicha entidad, incluyendo tanto sistemas de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica.

Alineado con ello, en el año 2008 se inició el Pacto de las Alcaldías de Europa para el cumplimiento y mejora de los objetivos climáticos y energéticos marcados por Europa, mediante acuerdos adoptados voluntariamente por los ayuntamientos. Los/las firmantes del Pacto se comprometen a la adopción de un enfoque común para el impulso de la mitigación y la adaptación al cambio climático Se les pide que durante los dos primeros años desde su adhesión al Pacto elaboren un Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible con el objetivo de reducir las emisiones de CO2 en un 40% para el 2030 y aumentar la resiliencia respecto al cambio climático.

